ESKOLA KIROLA DEPORTE ESCOLAR

TXIRRINDULARITZA
CICLISMO

# 2018ko Gipuzkoako Txapelketaren araudia

2018RAKO MAILAK
(EMAKUME ETA GIZONEZKOAK MAILA BEREAN).
BAINA NESKAK BI URTE GUTXIAGOKO MUTILEKIN LEHIATUKO DIRA, ALEBINETAN ETA BENJAMINETAN IZAN EZIK.
EMAKUMEEK ADIN BEREKO MUTILEKIN LEHIATU NAHI BADUTE, HORRETARAKO AUKERA IZANGO DUTE.

| MUTILAK | NESKAK | | URTEA |
|---|---|---|---|
| ELITE | ELITE | maila HORIA | Aukerakoa parte hartzailearentzat txapelketa osorako edo batzordeak hala proposatuta |
| MASTER 30 | MASTER 30 | maila LARANJA | 1988 an edo lehenago jaiotako emakume eta gizonezkoak |
| JUNIOR-SENIOR | | maila GORRIA | 1989 eta 2001. urteen artean jaiotako Gizonezkoak |
| KADETEAK | JUNIOR-SENIOR | maila LARANJA | Emakumezkoak:1989 eta 2001. urteen artean jaiotakoak<br>Gizonezkoak: 2002an eta 2003an jaiotako mutilak |
| INFANTILAK | KADETEAK | maila URDINA | Emakumezkoak: 2002 eta 2003. urteetan jaiotakoak<br>Gizonezkoak: 2004 eta 2005ean jaiotakoak |
| ALEBINAK | INFANTILAK ETA ALEBINAK | maila TXURIA | Emakumezkoak: 2004 eta 2005ean jaiotakoak<br>Emakume eta Gizonezkoak: 2006 eta 2007an jaiotakoak |
| BENJAMINAK | BENJAMINAK | maila TXURIA | 2008an eta 2009an jaiotako emakume eta gizonezkoak<br>Sustapen maila izango da. Hau da, helburua hezitzailea izango da; ez, ordea, lehiakorra. Haientzako gune bereziak prestatuko dira. Aitortza orokorra izango da, ez da kontuan hartuko sailkapena. |

Kirol modalitate hau zonaldeka edo guneka antolatutako oztopoak gainditzean datza. Ezaugarri nagusiak orekaren, malgutasunaren eta elastikotasunaren garapena dira.
Guneak ingurune naturalean mugatutako esparruak dira, edo bestela artifizialki sortuak. Zonaldeen arteko ibilbidea motza da, ez da bi kilometro eta erdi baino luzeagoa izango.
Parte hartzaileek ahalik eta garbien gainditu behar dituzte. Akatsak puntu negatiboekin zigortzen dira, horrela, oina lurrean jartzen den bakoitzean puntu batekin zigortuko da.
Kirol honetan zailtasun desberdinak seinaleztatzen dira, parte hartzaileen adina, tamaina eta gaitasun fisikoaren arabera.

## TXAPELKETA

Txapelketaren helburua kirol hau ezagutaraztea da, eskolarrei gerturatzea, ingurunearekiko errespetua eta kirol hezkuntza nabarmenduz.

Batez ere parte hartzaileak ondo pasatzea nahi da.

GIPUZKOAKO TXIRRINDULARITZA ELKARGOAk proba guztietara kaskoak, bizikletak, zango-babesak eramango ditu, denek parte hartu ahal izateko bizikletarik eta zango-babesik ez izan arren.

Parte hartzaile bakoitzak fitxa bat beteko du bere datuekin, eta horiekin datu base bat osatuko da, informatzeko eta hurrengo probetan parte har dezaten animatzeko.

ESKOLA KIROLA DEPORTE ESCOLAR



TXIRRINDULARITZA

CICLISMO

### IZEN-EMATEAK, IBILBIDEA, ZAILTASUNAK

Izen-emateak probaren egunean egingo dira, kontrol mahaian. Izen-emate orriak derrigorrez bete behar dira. Izena emateko orduan, 15 euro ordainduko dira parte hartzaile bakoitzeko eta bi edo anaia gehiago direnen kasuan 5 euroko deskontua izango dute anaia bakoitzeko (lehen parte hartzaileak 15 euro eta haren anaia batek edo bik 10 eurona). Kadete, Junior, Senior, Master 30 eta Elite mailako txirrindulariek FEDERAZIO LIZENTZIA eduki behar dute eta gainerakoek, ESKOLA KIROLEKO LIZENTZIA. Azken hauek eskolan eskatu behar zaizkio Eskola Kiroleko koordinatzaileari edo gorputz hezkuntzako irakasleari.

Ibilbideko bira baten luzeera 2,5 kilometro baino gutxiago izango da. Zonaldeen luzeera, 20 metro baino gutxiago eta zabalera metro bat baino gehiago.

Bost gune izango dira, hiru aldiz egin beharrekoak. Guneei nahi den ordenean egin ahal izango zaie aurre.

Parte hartzaile bakoitzak bere txartelaren koloreko gune eta derrigorrezko pasabideak zeharkatuko ditu. Ezin izango ditu beste batzuk zeharkatu.

### PROBAREN SAILKAPENA

Maila bakoitzean zigor puntu gutxien jasotzen dituena nagusituko da.

Berdinketa hausteko: Zero gehien pilatzen dituenak irabaziko du. Berdinketak jarraitzen badu, bat gehien dituena nagusituko da eta abar. Berdinketak bere horretan baldin badarrai, denbora gutxien egindakoak irabaziko du. Podiumerako lehian daudenek, ordea, epaimahaiak zehaztutako eta gainbegiratutako gune bati egin beharko diote aurre, berdinketa hautsi arte. Epaileen hautematearen gaineko erreklamaziorik ez da onartuko; euren irizpideak lehentasuna izango du beti.

### KANPORATZEA

Probaren muga diren hiru ordutik kanpo iristea (ez dago luzapenik).

Ez ematea txartela probaren bukaeran kontrol mahaian.

Kaskoa eta zango-babesak jarrita ez eramatea.

Guneetan entrenatzea.

### TXAPELKETAREN SAILKAPENA

2017-2018 ikasturtean Gipuzkoako eskola batean matrikulatuta dauden neska-mutil guztiek puntuatuko dute, betiere deialdi honetan ageri diren kategorietakoak baldin badira eta arauak betetzen baldin badituzte, baita Gipuzkoan federatutakoak ere. Jokatutako proba puntuagarrien %50ean lortutako puntuaketak aintzat hartuko dira. (proba kopurua x 1/2, gertueneko unitatera borobilduko da) beti ere kopurua hiru baino txikiagoa ez bada, txirrindulari bakoitzaren puntuaketa txarrenak baztertuko direlarik. Aintzat hartzeko proba kopurua 3 baino txikiagoa balekoa izango da, hiru proba baino gutxiago daudenean.

Berdinketa balego, aintzat hartu ez diren probetako emaitzarik onena kontuan hartuko da; berdinketak jarraitzen badu hurrengoa, eta abar. Berdinketak bere horretan jarraitzen badu, sailkapen hobeak lortu dituenak irabaziko du, eta azkenik, azken probako sailkapenik onena.

Proba bakoitzeko puntuak era honetan banatzen dira:

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1go = 20 p. | 2. = 17 p. | 3.= 15 p. | 4. = 13 p. | 5. = 11 p. | 6.= 10 p. | 7. = 9 p. | 8.= 8 p. | 9.= 7 p. | 10. = 6 p. |
| 11. = 5 p. | 12. = 4 p. | 13.= 3 p. | 14. = 2 p. | 15. = 1 p. | 16. = 1 p. | 17. = 1 p. | 18. = 1 p. | 19. = 1 p. | Gainerakoak = 1 p. |

### JANTZIAK

Kaskoak eta zango-babesak derrigorrezkoak dira.

## ZAILTASUNA HAUTATZEA

EMAKUMEAK: Bi urte gutxiagoko MUTILEKIN lehiatuko dira. Alebinetan eta benjaminetan, aldiz, adin bereko mutil eta neskekin egingo da sailkapena. Alebin mailako neskak eta mutilak infantil mailako neskekin lehiatuko dira eta haiekin batera agertuko dira sailkapenean. Zailtasun handiagoko edo txikiagoko kolorea aukeratuko balu, beheko puntuan ageri diren bonifikazioak edo zigorrak ezarriko dira.

Emakumeren batek bere adineko mutilekin lehiatu nahi badu, horretarako aukera izango du, betiere horretarako baimena eskatuta izen-emate mahaian probaren aurretik. Kasu horretan, gizonak eta emakumeak baldintza berberetan lehiatuko dira. Emakumeren batek proba batean baino gehiagotan parte hartuko balu, urteko lehen proban aritutako mailan jarraitu beharko du.

Nahi dutenak zailtasun handiagoko guneetan aritu ahal izango dira, baina beren mailan puntuatuko dute (15 puntuko gainsari bakarrarekin) edo zailtasun gutxiagoko guneetan, kolore bakoitzeko 100 puntu gehituz.

Edozein kasutan, zailtasun mailaren aldaketa mahaian jakinarazi beharko dute, aukeratutako kolorearen txartela hartu behar dute eta beraiena utzi. Epaileek txartelaren kolorea aintzat hartuko dute gune batean edo bestean sarrera baimentzeko.

## EPAIMAHAI TEKNIKOA (BATZORDEKO HIRU KIDE)

Lehiaketan erabakitzeko ahalmen handiena duen organoa da.

Bere funtzioak: Araudiaren aplikazioa zaindu, zigorrak jarri, sailkapenak sinatu eta aldatu probaren denbora ohiz kanpoko prozeduraz, aldez aurretik finkatutako denbora-muga baino ordubete lehenago txirrindulariei jakinarazi behar dielarik. Podiumeko lehian egonik, berdinketa hausteko proban parte hartu behar dutenen lana gainbegiratuko du.

## SARIAK

Proba bakoitzeko antolatzaileak, gutxienez, garaikur bat emango dio txapelketak dituen sei mailetan probaren lehen sailkatuari eta domina bigarren eta hirugarren sailkatuari.

Parte hartzaile guztien izenak aipatuko dira.

Ezin izango zaie benjaminei garaikurrik eman, Kirolaren Euskal Legeari men eginez ez delako kategoria horretarako txapelketarik egiten.

Sari ekonomikoak ezarri daitezke Elite kategorian.

Txapelketaren bukaeran, 6 mailetako lehen hiru sailkatuei eta domina emango zaie.

## GUNEKO EPAILEAREN ARAUDI BEREZIA

- Guneko epailea autoritate gorena da bere zonaldean. Aurrena, haren barruan dauden guztiak ateraraziko ditu eta ondoren, paso emango dio pilotu bakoitzari gunean sar dadin.
- Gunean sartzeko agindua: Parte hartzaile bakoitzak txartela emango dio epaileari eta hurrenkera horren arabera egingo da. Parte hartzaile batek egin berri duen zonaldean aritu nahi badu berriz ere, ilaran azken tokian jarriko da.
- Pilotu bakoitzak bere txartelako kolorea duten guneak eta pasabideak egingo ditu, ezin izango du beste batzuetan sartu.
- Aurreko gurpilaren ardatza sarrera eta irteerako irudizko lerroak gurutzatzen hasiko eta bukatuko da gunea.
- Behin gunearen barruan dagoela, pilotuak ezin izango du errepikatu, gunearen barruan dagoen norbaitek traba egin ez badio. Bakarrik kasu horretan errepìkatu ahal izango da gunea, etena gertatu den tokirainoko puntuak eta denbora kontuan hartuko direlarik, eta ondorengo puntuak gaineratuko dira.
- Epaileak pilotua gunea uztera behartu dezake fiasco delakoa egiten badu.
- Epaileak ez du onartuko inongo piloturik gunean sartzea kaskorik eta zango-babesik gabe.
- Epaileak ozen esango du puntuaketa eta puntuen berri emango du eskuko hatzak erabilita.

## PUNTUAKETA

- 0 puntu: Oina, oin punta , eskulekua, pedala edo babestekoa behin ere lurrean ez jartzea.
- Puntu bat: Oina, oin punta , eskulekua, pedala edo babestekoa lurrean behin jartzea.
- 2 puntu: Oina, oin punta , eskulekua, pedala edo babestekoa lurrean bitan jartzea
- 3 puntu: Oina, oin punta , eskulekua, pedala edo babestekoa lurrean hirutan jartzea
- 4 puntu: Oina, oin punta , eskulekua, pedala edo babestekoa lurrean lautan jartzea.
- 5 puntu: (Gunea bukatzea) Oina, oin punta, eskulekua, pedala edo babestekoa bost aldiz lurrean jartzea edo fiasco delakoa egitea.
- 10 puntu: Pilotuarekin doan norbaitek edo pilotuaren senitartekoren batek zerbait esatea epaileari.
- 10 puntu: Gunea aldatzea, epailearekin eztabaidatzea modu txarrean, kiroltasunaren aurkako jokabidea, irainak.

## FIASCO (5 PUNTU)

- Pilotuak ez badu nahi gunetik pasatu, FIASCO delakoa egin dezake, baina ezinbestean ilara egingo du eta gunean sartuko da.
- Oina ez den gorputzaren beste edozein gorputz atala lurrean jartzea: oinetik bertatik belaunerainoko zatia litzateke oina.
- Bi oinak lurrean jartzea aldi berean.
- Oina eta eskulekua lurrean aldi berean jartzea.
- Bizikletatik jaistea gorputza koadroaren alde batetik bestera pasatuz, hau da, oinak bizikletaren alde banatan ez daudenean.
- Gunetik ateratzea zintatik edo sarreratik. (kontuan hartuko da: gurpilaren ardatza edota pneumatikoa).
- Zinta apurtzea.
- Derrigorrezko pasabideak seinaleztatzen dituzten hesiak edo kolore bakoitzeko ateak botatzea.
- Zinta edo derrigorrezko pasabidea zeharkatzea gurpilaren ardatzarekin (bai gurpila lurrean dela bai airean dela) edo derrigorrezko pasabideetatik, bere txartelako kolorez seinaleztatuta egongo direnak, ez pasatzea.
- Bi gurpilak gunearen barruan egon arren, bizikletaren koadroak zinta zeharkatzen duenean.
- Bi minutu eta erdi baino gehiago behar izatea gunea zeharkatzeko. Epaileak, ozenki, jakinaraziko du noiz gelditzen diren 30 segundo, 20 segundo eta 10 segundo.

## EZ DA ZIGORTZEN

- Ez da fiaskotzak hartzen oina eta kontrako pedala aldi berean (puntu bat ezarriko da oinagatik eta beste bat pedalarengatik)
- Zinta gurpilarekin zapaltzea pneumatikoak gunearen kanpoaldean ez badu ukitzen.
- Nahi gabe ukitzea edozein gorputz atalekin.
- Oina biratzea mugitu gabe.

TXIRRINDULARITZA

CICLISMO

# Reglamento del Campeonato de Gipuzkoa para el 2018

CATEGORIAS PARA EL 2018
(CHICOS Y CHICAS EN UNA UNICA CATEGORIA).
PERO LAS CHICAS COMPETIRAN CON LOS CHICOS DE 2 AÑOS MENOS, MENOS LOS ALEVINES Y BENJAMINES.
PERO EN CASO QUE QUIERAN COMPETIR CON LOS DE SU EDAD, SE LES PERMITIRA, EN IGUALDAD DE CONDICIONES.

| CHICOS | CHICAS | | AÑO |
|---|---|---|---|
| ELITE | ELITE | nivel AMARILLO | Opcional por el participante para todo el campeonato o a propuesta de la comisión |
| MASTER 30 | MASTER 30 | nivel NARANJA | Chicas y Chicos: nacidos en el año 1988 y anteriores |
| JUNIOR-SENIOR | | nivel ROJO | Chicos: nacidos entre el año 2001 y 1989 |
| CADETES | JUNIOR-SENIOR | nivel NARANJA | Chicas: nacidas entre el año 2001 y 1989 y Chicos: nacidos los años 2002 y 2003 |
| INFANTILES | CADETES | nivel AZUL | Chicas: nacidas los años 2002 y 2003 y Chicos: nacidos los años 2004 y 2005 |
| ALEVINES | INFANTILES Y ALEVINES | nivel BLANCO | Chicas: nacidas los años 2004 y 2005 y Chicas y Chicos: nacidos los años 2006 y 2007 |
| BENJAMINES | BENJAMINES | nivel BLANCO | Chicas y Chicos: nacidos los años 2008 y 2009 Será una categoría de promoción: se dispondrá de zonas especiales para ellos con un propósito formativo, y no competitivo, y por tanto el reconocimiento será general a todos ellos y no en función de su clasificación. |

Esta especialidad ciclista consiste en que los participantes superen una serie de obstáculos agrupados en "zonas" tiene como características fundamentales el desarrollo del equilibrio, la flexibilidad y la elasticidad.
Las zonas son áreas delimitadas en un entorno natural, o creadas artificialmente y el recorrido entre las zonas es corto, no superando los dos kilómetros y medio.
Los participantes deben superarlas con la mayor limpieza posible, penalizándose los fallos con puntos (negativos), así por cada apoyo de pie se penaliza un punto.
En este deporte se señalan diferentes dificultades según las edades de los participantes, a propósito de su tamaño y posibilidades físicas.

## CAMPEONATO

El objetivo del campeonato es la popularización del deporte acercándolo a los escolares, resaltando los valores de respeto a la naturaleza y propiciando una educación deportiva.
Se pretende sobre todo la diversión de los participantes.
La GIPUZKOAKO TXIRRINDULARITZA ELKARGOA aportará a todas las pruebas cascos, bicicletas y espinilleras, para que puedan participar todos, sin necesidad de tener ni bici ni protecciones.
Cada participante rellenará una ficha con sus datos, con los que se creará una base de datos para irle informando y animando a la participación en el resto de las pruebas.

# ESKOLA KIROLA DEPORTE ESCOLAR

TXIRRINDULARITZA

CICLISMO

## INSCRIPCIONES, RECORRIDO y DIFICULTAD

Las inscripciones se realizaran el día de la prueba en la mesa de control, rellenando obligatoriamente las Hojas de Inscripción. A la hora de la Inscripción se abonara 15 € por cada corredor y aquellos que sean dos o mas hermanos tendrán un descuento de 5 € por cada uno a partir del segundo hermano (1er Hermano 15 € y 2°, 3° y sucesivos 10 €. Los corredores Cadetes, Junior, Senior, Master 30 y Elite deberán estar en posesión de la correspondiente LICENCIA FEDERATIVA y el resto de corredores en posesión de la LICENCIA DE DEPORTE ESCOLAR DEL AÑO EN CURSO. Se deben solicitar en el centro de estudios al coordinador de deporte escolar si lo hubiese o al profesor de gimnasia en su defecto.

La longitud de una vuelta del recorrido será inferior a 2,5 Km, y la longitud de las zonas inferior a 20 metros, y su anchura superior a 1 metro.

El número de zonas será de 5, a recorrer tres veces. Las zonas se podrán realizar en el orden que se quiera.

Cada corredor realizara las zonas y los pasos obligados con flechas del color de su tarjeta no pudiendo pasar por otras distintas.

## CLASIFICACIÓN DE LA PRUEBA

Vencerá en cada categoría el que menos puntos de penalización total obtenga.

Desempate: Ganará el que haya hecho más ceros, si sigue el empate, ganará el que haya hecho más unos, etc. Si el empate persiste, el que haya realizado menos tiempo, salvo para los pilotos que opten a podio, en cuyo caso se decidirá realizando una zona que definirá y supervisará el jurado técnico, así hasta que se deshaga el empate.

No se admitirá ninguna reclamación que se refiera a apreciaciones de los jueces, cuyo criterio tendrá siempre preferencia.

## DESCALIFICACIÓN

Llegar fuera de las tres horas de limite de la prueba (no hay prórroga).

No entregar la tarjeta al final de la prueba en la mesa de control.

No llevar puesto el casco y las espinilleras en cada zona.

Entrenar las zonas.

## CLASIFICACIÓN DEL CAMPEONATO

Puntuarán todos los escolares que estén matriculados durante el curso 2017-2018 en cualquiera de los centros de enseñanza no universitaria del territorio histórico de Gipuzkoa, que pertenezcan a las categorías que se señalan en esta convocatoria y que se sometan a las normas, así como los Federados en Gipuzkoa. Se tendrán en cuenta las puntuaciones obtenidas en el 50% de las pruebas puntuables celebradas ("número de pruebas x 1/2", redondeándose a la unidad más cercana) siempre que este número no sea inferior a 3, despreciándose las peores puntuaciones de cada corredor. Solo se podrá considerar el número de pruebas a contabilizar inferior a 3, cuando estas sean inferiores a 3.

En el caso de empate se tendrá en cuenta la mejor de las pruebas no computadas, si persiste el empate, la siguiente, etc. De persistir el empate, vencerá el que mejores clasificación haya obtenido, y por último la mejor clasificación de la última prueba.

Los puntos por cada prueba se asignaran del siguiente modo:

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1° = 20 p. | 2° = 17 p. | 3° = 15 p. | 4° = 13 p. | 5° = 11 p. | 6° = 10 p. | 7° = 9 p. | 8° = 8 p. | 9° = 7 p. | 10° = 6 p. |
| 11° = 5 p. | 12° = 4 p. | 13° = 3 p. | 14° = 2 p. | 15° = 1 p. | 16° = 1 p. | 17° = 1 p. | 18° = 1 p. | 19° = 1 p. | Resto = 1 p. |

## INDUMENTARIA

Casco y espinilleras obligatorios.

## ELECCIÓN DE DIFICULTAD

Las CHICAS: Correrán y clasificarán con los CHICOS de dos años menos. A excepción de las categorías de los Alevines y los Benjamines que correrán y clasificarán los chicos y chicas del mismo grupo de edad juntos. Los chicos y chicas de la categoría Alevin correrán y clasificarán junto con las chicas de la categoría infantil. Si eligiera un color de dificultad superior o inferior se aplicara las bonificaciones o penalizaciones detalladas en el punto más abajo.

Si alguna de las corredoras chicas quisiera correr con los chicos de su misma edad lo podrá hacer, pidiéndolo en la mesa de inscripción antes de la carrera. En este caso correrá a igualdad de condiciones que los chicos de su categoría. Si la participante chica corriese en más de una de las pruebas, deberá hacerlo en la misma categoría elegida la primera prueba realizada ese mismo año.

Los corredores que quieran podrán realizar zonas de dificultad superior puntuando en su propia categoría, con una única bonificación de -15 puntos, o bien de dificultad inferior añadiendo +100 puntos por cada elección a la baja en dificultad de color.

En todo caso el cambio de dificultad deberán comunicarlo en la mesa, sustituyendo su tarjeta por otra del color elegido. Los jueces tan solo atenderán al color de la tarjeta para permitir la entrada en una zona u otra.

## JURADO TÉCNICO (3 MIEMBROS DE LA COMISIÓN)

Es el órgano decisorio superior en competición.

Tiene como funciones: vigilar la aplicación del reglamento, imponer penalizaciones, firmar las clasificaciones y modificar (excepcionalmente) el tiempo total de prueba, comunicándolo a los pilotos una hora antes del tiempo límite previamente establecido. Supervisar el desempate para los que opten a podio.

## PREMIOS

El organizador de cada prueba, entregará como mínimo un trofeo al primer clasificado de la prueba y medalla al segundo y tercer clasificado de la prueba, de cada una de las 6 Categorías para las que se convoca el campeonato.

Se nombrará a todos los participantes

NO se entregarán trofeos a los Benjamines, por no convocarse campeonato para la categoría atendiendo a la Legislación Vasca del Deporte.

Se podrá fijar premios económicos para la categoría Elite.

A los tres primeros clasificados al final del Campeonato, de cada una de las 6 Categorías convocadas, se les entregará medalla.

## REGLAMENTO PARTICULAR DE JUEZ DE ZONA

- El juez de zona es la máxima autoridad en su zona. Obligará a todos los que estén dentro de ella a despejarla y posteriormente dará el paso a cada piloto para entrar en zona.
- Orden de entrada en zona: vendrá dado por el orden de entrega de la tarjeta de cada participante al juez de cada zona. Si un participante quiere volver a realizar la zona que acaba de hacer, pasará a ser el último en la cola existente.
- Cada corredor realizara las zonas y los pasos obligados con flechas del color de su tarjeta no pudiendo pasar por otras distintas
- Se considerará que la zona se inicia y termina al cruzar el eje de la rueda delantera las líneas imaginarias transversales de entrada y salida.
- Una vez dentro de la zona el corredor no podrá repetirla, salvo que sea obstaculizado por alguien dentro de la zona. solamente en ese caso podrá repetir la zona, teniendo en cuenta los puntos y el tiempo acumulados hasta el lugar de la interrupción, y añadiendo los puntos posteriores.
- El juez podrá obligar al corredor a abandonar la zona una vez realizado fiasco.
- El juez no permitirá la entrada en zona al piloto, sin casco y sin espinilleras.
- El Juez contara la puntuación en voz alta e indicará los puntos con los dedos de la mano.

**PUNTUACIÓN**

- 0 puntos: Ningún apoyo de pie, puntera, manillar, pedal o protector
- 1 punto: 1 apoyo de pie, puntera, manillar, pedal o protector.
- 2 puntos: 2 apoyos de pie puntera, manillar, pedal o protector.
- 3 puntos: 3 apoyos de pie, puntera, manillar, pedal o protector, o arrastrar el pie.
- 4 puntos: 4 apoyos de pie, puntera, manillar, pedal o protector.
- 5 puntos: (Finaliza la Zona) 5 apoyos de pie puntera, manillar, pedal o protector o fiasco.
- 10 puntos: El solo hecho de que el acompañante o familiar del piloto dirija la palabra al juez.
- 10 puntos: Modificar la zona, discutir con el juez con malos modos, conducta antideportiva, palabras malsonantes o injuriosas.

**FIASCO (5 PUNTOS)**

- Si el piloto no desea pasar la zona podrá picar FIASCO, pero necesariamente guardara la cola y entrará en zona.
- Apoyo de cualquier parte del cuerpo que no sea el pie. Considerándose este desde el propio pie hasta la altura de la rodilla.
- Apoyar los dos pies a la vez.
- Pie y manillar en suelo a la vez.
- Bajarse de la bicicleta pasando el cuerpo a un lado del cuadro, es decir cuando no este cada pie a un lado de la bicicleta.
- Salirse de la zona por la cinta o por la entrada. (contará: eje de la rueda y/o neumático).
- Romper la cinta.
- Tirar las flechas que indican los pasos obligados o puertas de cada color.
- Cruzar con el eje de la rueda la cinta o paso obligado (bien sea rodando o con la rueda al aire), o no pasar por los pasos obligados señalados con las flechas del color de su tarjeta.
- Cuando las dos ruedas están dentro de la zona pero el cuadro de la bici cruza la cinta
- Tardar más de 2 minutos y 30 segundos en atravesar la zona. Los últimos 30 segundos, 20 seg. y 10 seg. serán cantados en voz alta por el juez.

**NO PENALIZA**

- No es fiasco pie y pedal contrario a la vez (se puntuará un punto por el pie y otro por el pedal)
- Pisar la cinta con la rueda si el neumático no toca fuera de la zona.
- Rozar involuntariamente con cualquier parte del cuerpo.
- Girar el pie en su sitio sin desplazarlo